Osakidetza

Duela aste batzuk nire aitari bihotzekoak eman zion Gasteizen. Lehenengo momentu batean IMQko egoitzan artatu zuten eta, geroago, Txagorritxu ospitalera bidali zuten. Bost egun konorterik gabe egon eta gero, bere onera itzuli zen –zorionez guretzako–. Baina nire hitz hauek ez dira gure kasua egunkarian kontatzeko. Hitz hauek, daukagun osasun sistema publikoari eskerrak emateko dira. Egunez egun, zenbait politikarirengandik eta hedabidetatik gure sistema garestiegia dela, osasun zentro pribatuak bultzatu behar direla eta horrelako ideiak entzuten ditugu. Eta nik eta nire familiak aldarrikatu nahiko genuke Osakidetzako profesionalek egiten duten lana. Benetan eskertzekoa da zernolako lana eta dedikazioa duten gurekiko. Hau dela eta, gizarteari dei bat egin nahiko nuke: ohartu behar gara zer-nolako zerbitzu publikoak ditugun, zenbat esfortzu eta lan kostatu zaien gure aurrekoei hau guztia eraikitzea. Horregatik, defendatu, babestu eta zabaltzen joan behar gara gizarte osoari zerbitzu publiko hauek. Azkenik, mila esker, bihotzez, nire aita zaindu eta artatu zuten mediku eta pertsonal guztiari. Oso harro gaude zuen lanaz. Segi horrela.

Eder Lekuona Ruiz de Luzuriaga. Araia.